

Bonba-poltsa

Umeeek —eta baita heldu askok ere— pentsatuko dute, beharbada, azidoak eta baseak zientzialari mantal zuridunek giltzapean gordetzen dituzten gai kimiko arriskutsuak direla. Esperimentu erraz honen bidez, sukaldeko armairuan horrelako “agente sekretu” ugari daudela erakutsiko dugu. Denboran eta ekipamenduan apur bat inbertitzea nahikoa da sekulako etekina ateratzeko.

BEHARKO DUZU

- Neurketak egiteko pitxer bat
- 120 ml ozpin
- 1 1/2 koilaratxo sodio bikarbonato
- Izozkailurako plastikozko poltsa kremaile radunak
- Sukaldeko papera
- 60 ml ur epel

METODOA

1. Esperimentua ondo ateratzeko, plastikozko poltsak ez du zulorik izan behar. Begiratu ea zulorik duen; horretarako, bete erdiraino urez, itxi ondo eta jarri buruz behera harraskaren gainean.
2. Urik ateratzen ez bada, ondo dago. Hustu poltsa.
3. Egin 15 cm x 15 cm-ko karratu bat sukaldeko paperarekin.
4. Bota sodio bikarbonatoa sukaldeko paperaren erdigunera eta bildu papera gutun-azal moduko bat egiteko, hautsa barruan daukala.



5. Bota poltsa barrura ozpina eta ur epela.
6. Kontuz baina bizkor, sartu sukaldeko paperaz egindako “gutun-azala” poltsan eta itxi.
7. Eragin apur bat poltsari, jarri lurrean eta egin atzera.
8. Poltsa puztu egingo da, eta, gero, lehertu egingo da danbada polit batekin.



ZIENTZIA-AITZAKIA

Ozpinak eta sodio bikarbonatoak gogor eta bizkor erreakzionatzen dute, eta, horren ondorioz — eta hain bizkor—, karbono(IV) oxidoa sortzen da. Karbono(IV) oxido horrek poltsa betetzen du jarraian, eta orduan, josturetan indarra egin ondoren, leherrarazi egiten du, danbada batekin.



KONTUZ!

Esperimentu honetan ez da inor zaurituko, baina zikinkeria sor dezake. Esperimentua egiten hasi aurretik, itxi gela kontu handiz, ezer —edo inor— goitik behera busti edo zikindu ez dadin.